



---

## A. KODE ETIKOA

---

<b>Data eta bertsio-zenbakia</b>	<b>Arduraduna</b>	<b>Onarpenaren arduraduna</b>
2016/06/27. 1. bertsioa	Administrazio-Kontseilua	Administrazio-Kontseilua

## 1. SARRERA

---

Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D.ren Administrazio-Kontseiluak (aurrerantzean, "Kluba" edo "Eibar") 2016ko ekainaren 27an onartu zuen Kode Etiko honek gure Klubaren jarduera-arau guztiak eta gobernu- eta jokabide-printzipio orokorrak azaltzen ditu, eta horiek aplikagarriak zaizkie hari Lotutako Pertsona guztiei.

Lotutako pertsona guztiak (halakotzat hartu behar dira Administrazio-Kontseiluko kideak, zuzendariak, Klubeko taldeetako jokalaria, kidego teknikoetako kideak, medikuak eta fisioterapiako langileak, beste langile batzuk), bai eta haren jarduerarekin lotzen diren eta Kode honi atxikitze-klausula jasotzen duten bitartekoak ere. Lotutako Pertsona guztiek Kode Etiko hau irakurri, ezagutu, errespetatu eta sinatu beharko dute, eta berariaz adierazi beharko dute uko egiten diotela printzipio horien aurkakoa izan daitekeen edozein jarduera-mota gauzatzeari; halaber, saihestu egin beharko dituzte metodo eta jardunbide ez-moralak edo printzipio etikoen aurkakoak, edo gure Klubaren irudia edo ospea zikindu edo kaltetu dezaketenak.

Kode Etiko honetan ezarritako printzipioak Klubaren Arauak Betetzeko Programaren Eskuliburuan jasotako kontrol-protokoloen eta -mekanismoen bidez garatuko dira, Kodea onartzen den unean, bai eta etorkizunean sar daitezkeen beste edozein protokolo eta mekanismoren bidez ere.

Gure konpromisoa eta kirol-kultura printzipio gidari hauetan oinarritzen da:

### A. Zuzentasuna, Gardentasuna eta Etika

Etika-estandar zorrotzenen pean egiten ditugun jarduera guztietan oinarritzen gara, gure jardueretan ahalik eta gardentasun handiena ziurtatuz eta ahalik eta zuzentasun handienarekin. Klubarekin harremana duten pertsona guztiak, lan-harremana izan edo ez, Kirolari Profesionalak izan edo ez, behartuta daude beren jarduerak estandar etiko gorenei jarraituz garatzera, eta une oro Klubaren izen ona zaintzera.

### B. Joko Garbia

Kirol-jardueren garapenean jokabide *leiala, zintzoa, zuzena eta errespetuzkoa* izatea dakar, hasieratik sustatu dugun Kirol-Espiritua erabat errespetatuz eta kirol-araudia eta arlo horretan diharduten pertsona guztiak (kirolariak, entrenatzaileak, agintariak, epaileak, zaleak, etab.) bereziki errespetatuz.

### C. 0 Tolerantzia edozein ustelkeria motarekin

Ildo beretik, ustelkeriaren edozein mota erabat gaitzesten dugu, baita lehiaketaren emaitza manipulatzera, legez kanpoko apustuak egitera, eroskeriara, sobornatzera edo interes-gatazketara bideratutako jokabideak ere. Ekintza horiek bateraezinak dira kirol-espirtuarekin, eta haren funtsa aldatzen dute, Sozietatearen gaitzespena eta gure zaletasunean deserrotzea eraginez. Horrelako jokabideak saihesteko beharrezkoak diren mekanismo guztiak ezarriko ditugu.

### D. 0 Tolerantzia kirolean indarkeriarekin, diskriminazioarekin, jazarpenarekin, arrazakeriarekin, xenofobiarekin edo intolerantziarekin

Kirola pertsona libreek garatzen duten jarduera da, eta errespetuan, aniztasunean eta pertsonen arteko berdintasunean oinarritzen da. Gainera, kulturarteko

integraziorako faktore bat da. Erabat gaitzesten dugu indarkeria fisikoa edo hitzekoa, edo arraza, etnia, erlijio, sexu, sexu-orientazio, hizkuntza, itxura fisiko edo iritzi politikoengatik. Era berean, ez dugu onartuko jazarpen moral edo sexualeko, fisikoko edo ahozko jokabiderik, ezta edozein motatako intolerantzia-adierazpenik ere. Klubak beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu horrelako adierazpenak eta jokabideak saihesteko eta, beharrezkoa bada, desagerrarazteko.

### **E. Ardura, Ahalegina eta Talde-Lana**

1940an sortu ginenetik Futbol Klub apala izan gara, baina egiten ditugun eta gure kirol-ibilbidean agerian jartzen diren jarduera guztietan erakusten ditugun ardura-eta ahalegin-dosi handiekin, Espainiako futbolaren elitean finkatzea lortu dugu azken urteotan, baita talde-lanari eta Eibar osatzen dugun guztion inplikazioari esker ere. Ezaugarri eta balio horiek agerian geratzen dira, halaber, 10.000 akziodun baino gehiago ditugulako 69 herrialdetan banatuta. Akziodun horiek gureganatu egin ditugu gure eguneroko bizitzan eta gure jarduera guztietan erakutsi dugun ahalegin eta ardurari esker, eta azken hori talde-lanaren adierazpen gehigarri bat izan da.

### **F. Konfidentzialtasuna**

Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D. eta haren Lotutako Pertsona guztiak behartuta daude Klubari edo haren edozein Lotutako Pertsonari eragin diezaiokeen edozein jarduketa, informazio edo gairi buruzko konfidentzialtasun osoa gordetzera.

## **2. EZARPEN-EREMUA**

---

Kode Etiko hau nahitaez bete behar dute Klubarekin zerikusia duten pertsona guztiek, lan-harremana dutenek, eta baita bestelako harremana dutenek (administrazio-kontseilua, Klubeko taldeetako jokalaririk zuzendariak, teknikarien kidegoetako kideak, medikuak eta fisioterapiako langileak, beste langile batzuk, bitartekariak, agenteak, ordezkariak, hornitzaileak, babesleak) (aurrerantzean, "Lotutako Pertsonak").

Klubarekin Lotutako Pertsona orok konpromiso-adierazpen bat sinatu beharko du, eta bertan ziurtatuko du irakurri eta ulertu duela, eta bertan ezarritakoari atxikitze konpromisoa duela. Hori dela eta, Kode Etiko honetan eta Kode honetatik kanpo geratzen diren Protokolo eta Kontrol guztietan zehaztutako jarraibide eta arau guztiak bete beharko ditu. Diziplinazko zehapenak aurreikusten dira Kode honetan eta Protokolo eta Kontrolaren aurreikusitakoa betetzen ez bada, aplikatu beharreko Hitzarmen Kolektiboan, Klubaren Diziplina-Kodean eta Barne-Erregimeneko Araubidean ezarritakoarekin bat etorritik. Horrez gain, bitartekoekin sinatzen diren kontratuetan (babesleak, hornitzaileak, etab., "barkide komertzialak", oro har), Kode Etikoari atxikitze klausula hau sartuko da: *(hornitzailea/kontratista/bitartekoa XXX, S.A./S.L.) klausula hau sinatuz, adierazten du Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D. Sozietatearen Kode Etikoa ezagutzen duela (kontratu honi erantsita doa, X. dokumentu erantsi gisa), eta bertan jasotako baldintzak, printzipioak eta xedapenak betetzera behartuta dagoela. Era berean, onartzen eta baimentzen du bere betekizun, printzipio eta xedapenetako edozein ez betetzeak edo hausteak Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D.ri ahalmena emango diola kontratu hau deuseztatzeko, eta, horrez gain, dagokion demanda jartzeko, ez-betetze horrek Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D.-ri eragindako kalte-galerengatik, hala dagokionean.*

## **3. INTERES-GATAZKAK**

---

Egunero gaude harremanetan Klubarekin harreman komertzialak dituzten pertsona edo sozietateekin (hornitzaileak, bezeroak, bitartekoak). Garrantzitsua da hartzen

dugun edozein erabaki Klubaren interesaren arabera izatea, eta ez interes edo harreman pertsonalen arabera.

Interes-gatazka sor daiteke Klubarekin Lotutako Pertsonak beren betebeharrak modu independentean eta osoan betetzeari kalte egiten dioten interes pribatuak edo pertsonalak badituzte edo badituztela ematen badute. Interes pribatu edo pertsonaltzat hartzen da senitarteko, lagun edo ezagunen mesederako izan daitekeen edozein akordio.

Interes-gatazka gehienak erabat saihestu edo konpon daitezke, Klubari behar bezala jakinarazten bazaizkio. Interes-gatazka sor dezakeen jardueraren bati buruzko zalantzarik baduzu, jo Ikuskapen eta Kontrol Organora.

#### **4. EROSKERIA ETA USTELKERIAREN AURKA**

---

Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D. elkarteak erabateko gaitzespena eta gutxiespena adierazi nahi dio eroskeria mota orori.

Hori dela eta, Klubeko pertsonen edo bitartekoen opariak edo bestelako onurak onartuko ditugu, edo bitartekariari dagokienez, soilik baldin eta:

- a) balio sinbolikoa edo garrantzirik gabekoa dute;
- b) ez dakarte inolako eraginik gure jarduera ofizialetan edo beren eremuan;
- c) ez dira gure betebeharren kontra joaten;
- d) bidegabeko onura ekonomikorik edo bestelakorik ez dakarte;
- e) ez dute interes-gatazkarik eragiten.

Debekatuta dago aurreko irizpideak betetzen ez dituen edozein opari edo onura onartzea. Kasu gutxitan, salbuespenak ezarri ahal izango dira, eta, horietarako, alde aurretik Klubaren Ustelkeriaren Aurkako Protokoloan ezarritako prozedurari jarraitu beharko zaio. Inolaz ere ez dugu eskainiko edo onartuko Klubeko inork edo beste inork eskudirutan edo antzeko moduan emandako diru-kopururik.

Zalantzarik izanez gero, ez da oparirik eskainiko, ezta onartuko ere.

Klubak ezin izango digu dirua itzuli ekitaldi ofizialetara laguntzen diguten senideen edo elkartekideen kostuengatik, Klubak berariaz baimentzen ez badu. Baimen horiek idatziz eman beharko dira.

Ez dugu jokabide desegoki gisa interpreta daitekeen edo horren susmoak sor ditzakeen jokabiderik edo jarduerarik izango, aurreko ataletan deskribatzen den bezala.

Eroskeria era askotakoa izan daiteke, eskudiruaz eta opariez gain. Besteak beste:

- a) Justifikatu gabeko komisioen ordainketa
- b) Komisio ilegalak edo gehiegizkoak
- c) Justifikatu gabeko deskontuak
- d) Justifikatu gabeko dohaintzak (alderdi politikoak, GKEak ez diren erakundeak)
- e) Lanpostu-eskaintzak edo -promesak

## **5. JOKO GARBIA: IRUZURRA PARTIDUETAN ETA LEGEZ KANPOKO APUSTUAK**

---

Ez dugu parte hartuko edo elkartuko, zuzenean edo zeharka, apustuekin, loteriekin, ausazko jokoekin eta antzeko jarduerekin, edo futbol-lehiaketekin lotutako negozioekin. Era berean, ez dugu harreman aktibo edo pasiborik izango jarduera edo transakzio horiek sustatzen, hitzartzen, antolatzen edo zuzentzen dituzten konpainia, enpresa, erakunde eta abarrekin.

Ildo horretan

1. Guk geuk edo tarteko pertsona batek ez dugu apusturik egingo Klubari zuzenean edo zeharka eragiten dion partida baten gainean.
2. Ez dugu apusturik egingo Klubak parte hartzen duen lehiaketa bateko partida baten gainean. Horren barruan sartzen dira Klubak jokatzeko asmoa duen baina hasi ez diren lehiaketak, baita Kluba kanporatua izan den lehiaketak ere.
3. Hirugarren bati ez diogu eskatuko edo ez diogu izapiderik egingo apustu bat egin dezan, informazio pribilegiatua izanez gero honako hauei buruz:
  - Lehiaketaren beraren partida baten emaitza
  - Partida bateko (edo batzuetako) garapenaren edozein zertzelada (txartel-kopurua, izkinetako sakeak...)
  - Aldez aurretik jakiten den beste edozein gertaera edo gorabehera, gure Klubari edo lehiaketa berean parte hartzen duen beste edozein Klubi eragiten diona.

Eibarrek konpromiso sendoa du osotasunarekin eta joko garbiarekin, bere adiera guztietan, finantza-zuzentasuna barne. Horretarako, gure Klubaren barne-arauetan kutxa-kontrolen protokolo zorrotz bat sartu da, partidak ezkutatzeko edo hirugarrenei eroskeria eskaintzeko erabil daitezkeen kutxa-irteera irregularrak saihesteko, bai eta legez kanpoko apustuak eta informazio pribilegiatua erabiltzea saihesteko klausula bat ere.

Ez dugu jokabide desegokitzat har daitezkeen edo horren susmoak sor ditzakeen jokabiderik edo jarduerarik izango, eta ez soilik indarrean dagoen legediak eskatzen digulako, baizik eta konpromiso handia dugulako Zuzentasunarekin, Etikarekin eta Joko Garbiarekin garatzen ditugun jarduera guztietan.

## **6. JAZARPENAREN AURKA**

---

Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D. elkarteak pertsona guztien aniztasun zabal eta aberasgarria baloratzen du. Gure ustez, aniztasunak oso ekarpen positiboa egiten dio gure Klubaren arrakastari, baina, era berean, gure Euskal nortasun sakonean, oro har, eta Gipuzkoarran bereziki sinesten dugu eta sustatzen dugu. "Aniztasuna" esaten dugunean sexu, arraza, adin, erlijio, iritzi politiko, etnia, hizkuntza, sexu-orientazio, itxura fisiko, erosteko ahalmen edo hezkuntza-maila desberdintasunei buruz ari gara. Horregatik, berariaz debekatuta dago arrazoi horiengatik edo beste edozein arrazoiengatik diskriminatzea.

Era berean, Klubaren asmoa eta betebeharra da edozein jazarpen mota edo klasetik libre dagoen lan-giro askea eskaintzea, jazarpen hori lanekoa, sexuala, psikologikoa, fisikoa edo morala dela ere. Aurrez aurre edo beste edozein bidetatik eragin bada ere. Xedapen horiek zehatzago jasotzen dira Klubaren Jazarpenaren eta Diskriminazioaren aurkako Protokoloan.

Horrela, ez dugu erasorik egingo herrialde baten, pertsona baten edo talde baten duintasunaren edo osotasunaren aurka, mespretxuzko hitzak erabiliz edo ekintza iraingarriak eginez, aurrerago azaldutako arrazoiengatik edo beste edozeinengatik.

1. Gizabanako ororen segurtasuna errespetatuko dugu, hau da, tratu zuzena edo zeharkakoa jasotzen dugun pertsona bakoitzaren eskubide pertsonalen errespetua, babesa eta zaintza.
2. Debekatuta dago jazarpen morala; hau da, pertsona baten aurkako eraso sistematikoa eta errepikatuak, aldi handi batean zehar egiten direnak, pertsona hori isolatzeko edo baztertzeko, eta, beraz, pertsona horren duintasun pertsonalari eragiten diotenak.
3. Sexu-jazarpena debekatuta dago; hau da, bidegabeko sexu-portaera bat, eskatu ez dena edo horretarako bide eman ez dena. Bereziki, mehatxuak, onura-promesak eta sexu-helburuekin hertsatzea debekatzen dira.

## **7. LANEKO SEGURTASUNA**

---

Kluba erabat ziur dago Lotutako Pertsona guztiei lantoki seguru bat eman behar diegula, lan-arriskuen prebentzioari buruzko legeriarekin bat datorrena. Horregatik, lantoki seguru, osasungarri eta egokitua eskaintzen diegu Lotutako Pertsona guztiei, Klubean duten lanpostuaren arabera.

Ildo beretik, berariaz debekatzen dugu lantokira joatea edozein droga edo substantzia toxiko, psikotropiko edo estupefazienteren eraginpean, bai eta alkoholaren eraginpean ere, agindutako eginkizunak betetzen ari diren bitartean.

Halaber, ez dugu armarik edo arriskutsuak izan daitezkeen gailurik eramango, gure lanbide-jardueraren garapenak hala eskatzen duenean izan ezik.

Gure lankideei adieraziko diegu segurua ez den jarduera bat egiten ari direla, hala bada. Gogoeta horiek zehatzago jasotzen dira Lan Kontrataziorako Protokoloan.

## **8. DATUEN BABESA ETA BALIABIDE INFORMATIKOEN ERABILERA**

---

Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D. sozietateak irmoki errespetatzen du Kode Etiko honen bidez Lotutako Pertsona guztien eremu pribatua.

Kide guztien datu pertsonalak erabat babestuko dira. Baliabide informatikoen erabilerari dagokionez, Klubak haien edukia errespetatuko du, betiere bitarteko horien erabileraren bidez egindako irregulartasunik ez badago. Muga hori dagokion jokabide-protokoloan arautuko da.

## **9. EZAGUTZAN JARTZEA**

---

Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D.-en kezkatzen gaituzte gure irudia, ospea edo Arauak Betetzeko Programa honen edo aplikatu beharreko lege, arau eta xedapenen aurkakoak izan daitezkeen ekintza edo jarduerak. Hori dela eta, egoera horiek saihesteko, zenbait arau eta jarduteko jarraibide ezartzen dira Kode Etiko honen eta harekin batera doazen Protokoloen ez-betetzeen edo balizko ez-betetzeen salaketak helarazteko eta ebazteko prozedurari dagokionez, horiei berehala amaiera emateko.

Ikusten edo susmatzen badugu jokabide desegokia edo Kode honetan edo Programa osoan azaldutakoaren aurkakoa dagoela, Ikuskapen eta Kontrol Organoari jakinarazi behar diogu. Informazioa ez emateak ondorio negatiboak izan ditzake Klubarentzat edo eragindako pertsonentzat: mota ekonomikokoak, irudiari dagozkionak, lesio fisikoak edo kaleratzeak edo legezko ekintzak.

Klubak ez du inolako errepresaliarik onartuko kezka bat adierazten duten edo irregulartasun etiko baten berri fede onez ematen duten pertsonen aurka edo araudi aplikagarriaren aurka. Ahal diren ekintza guztiak egingo ditugu adierazitako iritzi guztien eta jasotako txostenen konfidentzialtasuna bermatzeko. Errepresalia gisa hurrengoak ulertzen dugu: lan-kaleratzea, soldata murriztea, kategoria murriztea, zeregin desatseginak esleitzea eta kalte fisiko edo psikologikoen mehatxua.

Aurkeztutako txostenak ahalik eta seriotasun handiarekin tratatuko dira, eta ahalik eta azkarren ebatziko dira. Emandako informazio guztia isilpean tratatuko da. Era berean, errepresalia-alegazio bakoitza sakon ikertuko dugu, eta horien arduradunei diziiplina-neurriak aplikatuko zaizkie, frogatuz gero, aplikatu beharreko Hitzarmen Kolektiboan, Diziiplina Kodean eta Barne Erregimeneko Araubidean ezarritakoarekin bat etorritik.

Konfidentzialtasuna ziurtatzeko eta balizko arau-haustek aurkitzen laguntzeko, Klubarekin Lotutako Pertsona guztien eskura jartzen da salaketak edo komunikazioak egiteko helbide elektronikoa hau: [canaletico@sdeibar.com](mailto:canaletico@sdeibar.com).

Halaber, ondorio horietarako izendatutako Ikuskapen eta Kontrol Organora jo ahal izango dute, eta organo horrek konfidentzialtasun-maila handienarekin jardun beharko du jasotako informazioei dagokienez. Klubak Ezagutzan Jartzeko Protokoloa ezarri du. Bertan, jarraitu beharreko prozedura eta hura zuzentzen duten printzipioak zehazten dira. Protokoloaren kopia bat lor dezakete, Ikuskapen eta Kontrol Organoaren bidez.